


LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK

musika

Oilasko hegalak askatasunera hegatan egiteko

Etxeko rolei buruz gogoeta piztu nahi duen lana kaleratu berri dute Eider eta Arrate Rodriguez ahizpek. Askatasunerako bidaia gisa aurkeztu dute **'Oilasko hegalak'** album ilustratua

 INIGO SATRUSTEGI



 Elkarlanean egiten duten bigarren lana da 'Oilasko hegalak'. GORJIA ESTRADA

ASTERO-astero, igandez, familia bat mahaiaren bueltan biltzen da bazkalorduan. Menua astero-astero berdina da: oilasko errea. Amak prestatzen du jatekoa mimoz, eta, astero-astero moduan, labetik ateratzerako inork nahi ez dituen sobakinak baino ez dizkiote uzten etxeko aitak eta seme-alabek: oilasko hegalak. Hala bada, jatearen jatez, ama ondoezik sentituko da egun batean, eta hegalak ere haziko zaizkio. Bidaia bat abiatuko du orduan, hegan askatasunera.

Aspalditik buruan zebilkion ideia batetik abiatu da Eider Rodriguez (Errenteria, Gipuzkoa, 1977) idazlea *Oilasko hegalak* (Erein, 2020) lanari ekiteko. Irudiak Arrate Rodriguez (Errenteria, Gipuzkoa, 1984) ahizpa eta diseinatzaile-illustratzaileak jarri dizkio elkarrekin egindako album ilustratuari. Errenteriako ahizpek batera egiten duten bigarren lana dute honakoa, eta onartu dute oso modu "naturalean" eta "konfiantza osoz" aritu direla. Ez da izan anai-arreben arteko ika-mikarik ez eta tentsiorik, hortaz. Kasuon, ahizpek elkarri gehiegi behartu gabe.

ALDEBIKO HELBURUA *Oilasko hegalak* haurrentzako literatura gisa sailkatzen den arren, etxeko kide desberdinek irakurtzeko lana osatu dute Rodriguez ahizpek. Izan ere, halako album ilustratuak gurasoen konpainian irakurri ohi dira, eta idazleak adierazi duen moduan "irakurketa konpartitua da, eta sortzen dituzten irudiak, beraz, ere bai". Egoera hori aitzakia hartuta, eta istorio beretik abiatuta, irakurle desberdinen eragina efektu desberdinak bilatu dituzte: "Haur batek abentura ikusi dezakeen lekuan, gurasoek askapen prozesu bat ikusi dezakete", azaldu du Eiderrek. Edonola ere, modu zuzenean edo zeharkakoan, familiako rolei buruzko gogoeta piztuko du liburuak irakurlearengan.

Hain zuzen ere, askatasunera bidaia hasiko du liburuko amak hegalak hazten zaizkionean. Platerako arrastoak jatera kondematuta egon ostean, egoerari buelta ematen saiatzen da "txarretik ona ateratzeko", eta zerura salto egitearekin batera aldaketa etorriko da, bere aldarrean, izaeran edota bizitzeko moduan. "Fenixa bezala, errautsetatik sortuko da mundua korritzeko". Amak ez ezik, etxekoek ere jarrera eta ikuskera eraldaketa bat izango dute amarekiko eta, nolabait "katarsi domestikoa" gertatuko da, alegia.

ELKARTRUKA ARDATZ Haurrentzako albumetan bi diziplinen arteko elkarrekin osagarritasuna beharrezkoa dela azpimarratu du Arratek: "Batak ez du bestea gabe funtzionatzen; iru-

diak testuari, eta testuak irudiari ematen dio". Aurrena, ipuina sortu zuen Eiderrek eta ilustrazioak pintatu zituen Arratek, ondoren. Irudien arabera testua ere aldatzen joan egin dela azaldu dute, bakoitza bere aldetik aritu den arren, norantza berean. Idatzizko istorioa "soila" dela esan daiteke, ez horregatik garrantzirik gabekoa, eta irudiek testuan esaten ez dutena osatzen dute. Esan daiteke, beraz, elkarrekin ondutako dute lana dela aurkeztu berri dutena.


Elkarrekin, baina ez batera. Arrate Mexikon egon baita proiektua eskuartean izan bitartean. Itsasoz beste aldeko herrialdeak, zalantzarik gabe, bere aztarnak utzi ditu album ilustratuan: "Arrate Mexikon izateak ez du oztoporik eragin sortzerako orduan, eta, aldiz, irudiak

Mexikoz bustita egotea ekarri du", azaldu du Eiderrek, eta Euskal Herrian egin izan balitu bestelakoak izango lirakeela iradoki du. Bere aldetik, Arratek, honakoa erantsi du: "Pintatzeko duzun tokiko argia oso garrantzitsua da, argi horrek koloreak busti eta baldintzatzen baititu ilustrazioak". Estimuluek ere mintzo da irudigilea, inspirazio bihurtzen baitira sortzailearentzat eta irudietara eramaten direlako, era kontzientean zein inkontzientean. "Nire estiloa, berez, koloretsua da eta kasu honetan, are eta koloretsuagoa izan da". Keinuak ugarriak dira Ameriketako herrialdeari: jatekoak, eszenetako elementuak, loreak...

HAURRAK MUGARRI Elkarrekin egiten duten bigarren lana da honakoa. Aurrekoa ere haur eta gazte literaturako lana izan zen: *Nikoleta eta gaua* (Elkar, 2008). Oraingoan, baina, adierazi dute *Oilasko hegalak* izeneko proposamenaren formatu bereziagoa dela.

Arrate Rodriguez beste esparru batzuetan aritu da diseinatzaile eta ilustratzaile modura orain arte; bereak dira, esaterako, euskal egileen hainbat liburutako eta diskotako azalak. "Exigentea" deritzo Arratek haur eta gazte literaturako istorioak ilustratzeari, izan ere, irudian jartzeko elementuak ohi baino arreta handiagoarekin neurtu behar dira, baita sinbolismoa bera ere. Ahalegin handia izan dela aitortu du, eta era berean, Euskal Herrian, bederen, ekonomikoki konpentsatzen ez duen diziplina dela gaineratu du. Ez du, horratik generoan segitzeko ideia gutziz albo batera utzi.

Kontrara, Eiderrek haurrentzako eta gazteentzako egindako literaturan egin du nolabait bidea. Hain zuzen ere, sail horretako Euskadi Saria irabazi zuen *Santa Familia* (Ikastolen Elkarte, 2017) komikiarekin 2018ko aldiari.



Eider eta Arrate Rodriguez

Urgull 2004 S.A.

Zuzendaria: Eduardo Iribarren
Koordinazio lana: Jonebati Zabala
Diseinua: Jesús Santamaria

Maketazioa: Janire Neches
Azala: Borja Guerrero
Lege Gordailua: BI 1720-06